

2001eko APIRILaren 15eko BILKURA BEREZIA

Lizartzan, bi mila eta bateko apirilaren hamabostean, eguerdiko hamabiak direnean, Alkate Ordea: Ana Ederra Irurzun; Udalkideak: Antton Balerdi Garmendia, Lurdes Altuna Arritegi, Lontxo Goikoetxeaundia Martinez; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Bilkura Berezian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

EUSKAL NAZIOTASUNA AITORTZEKO AGIRIA ESKATU ETA IGORTZEARI BURUZKO UDAL ARAUDIA

HITZAURREA

- I. KONTUAN HARTU DUGU** nazioarteko erkidegoak zenbait tratatu eta akordioen bidez (hala nola, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunen Babeserako Europar Hitzarmena, Eskubide Zibil eta Politikoen Ituna eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna) honakoak aitortu dituela:
- 1.- Herri guztiek dute erabakiak askatasunez hartzeko eskubidea eta, eskubide horren bitartez, beren egitura politikoa eta garapen ekonomiko, kultural eta soziala askatasunez finka dezakete.
 - 2.- Gizaki guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dagozkie jaiotzez eta beren nortasuna aitortzen zaie.
 - 3.- Gizaki guztiek dute naziotasuna izateko eskubidea eta inori ez zaio bere naziotasuna edo naziotasuna aldatzeko eskubidea kenduko.
 - 4.- Gizaki guztiek dute beren iritzia emateko eta beren sinesmenak adierazteko askatasuna eta agintari publikoek ez dute esku sartzerik izango.

- II. **KONTUAN HARTU DUGU** askatasuna eta eskubideak bermatzeko orduan, ez dela desberdintasunik egingo nazio jatorriagatik, gutxiengo nazional batekoa izateagatik, hizkuntzagatik edo iritzi polikoengatik.
- III. **BERRETSI DUGU** Udal hau oinarrizko askatasun horiei atxiki zaiela, justizia eta demokraziaren gutxieneko oinarriak direlako.
- IV. **AINZAT HARTU DUGU** gorago aipatu printzipioen arabera, gizakiak ezin duela askatasun zibil eta politikoez gozatu, baldin eta horretarako baldintzak sortzen ez badira.
- V. **KONTUAN HARTU DUGU** Udal honek, erakunde publiko den heinean, errespetua eta askatasun eta eskubide horien egikaritza sustatzeko betebeharra duela.
- VI. **KONTUAN HARTU DUGU** Udalerri honetako hiritarrek beren naziotasuna aitortzeko eta naziotasun horri askatasunez atxikitzeko eskubidea dutela eta, horrela izanik, ez dela inolako desberdintasunik egingo, ez eta inolako mugarik jarriko.
- VII. **KONTUAN HARTU DUGU** Udalerri honetako biztanleei espainiar edo frantziar naziotasuna aitortzeko eskubidea bermatzen zaiela, ez ordea euskal naziotasuna.
- VIII. **BAIETSI DUGU** hori horrela dela eta hainbat eta hainbat euskal hiritarrek eskubide horren egikaritza bermatzeko eskaria sinatu dutela.

Udal honen legimitatean oinarrituz, lehenengo Euskal Erakunde Nazionala eta bakarra den Udalbiltzaren eskariz, eta 1985eko Europar Gutunak aitortutako Tokiko Autonomia egikarituz, Udal honek

HAUXE PROPOSATZEN DU:

LEHENA.- Euskal Naziotasuna Aitortzeko Dokumentuan hiritarrek, askatasunez eta demokratikoki, Euskal Herri edo Nazioko hiritar izateko nahia eta borondatea adierazten dute. Dokumentu publikoa da eta Udal honek horren benetakotasunaren fede emango du.

BIGARRENA.- Euskal Naziotasuna Aitortzeko Dokumentuak hiritarraen nortasun eta auzokidetasunaz fede emango du, udalaren ondorioetarako.

HIRUGARRENA.- Udal honek udalerriko hiritar guztien berdintasuna sustatuko du. Hori dela eta, eskuar dituen baliabide guztiak erabiliko ditu auzokideek askatasunez eta eraginkortasun berberaz adieraz dezaten espainiar, frantziar edo euskal naziotasuna harreman komertzial, sozial eta juridikoetan (publiko zein pribatuetan).

LAUGARRENA.- Udal honetako edozein hiritarrek eska dezake Euskal Naziotasuna Aitortzeko Dokumentua. Horretarako, interesatuak udal bulegoetan izango ditu eskaera-inprimakiak eta instrukzio orriak. Orri horietan eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak adieraziko dira:

- Nortasun Agiriaren tamainako 3 argazki.
- Errolda Agiria.
- Legezko ordezkariaren dokumentazioa, kasuan-kasuan.
- Tramitazio gastuengatiko zenbatekoa kontu zenbakian sartu dela egiaztatzeke agiria.

BOSGARRENA.- Interesatuak behar bezala bete eta sinatu beharko du Euskal Naziotasuna Aitortzeko Dokumentuaren eskaera-inprimakia. Horrela, sinatzen duenak adieraziko du bere borondatez eskatzen duela Euskal Naziotasuna eta espreski baimentzen duela emandako datu pertsonalen erabilera, bai Euskal

Naziotasuna Aitortzeko Dokumentua tramitatzeko, bai Udalbiltzak etorkizunean egoki deritzonerako.

SEIGARRENA.- Euskal Naziotasuna Aitortzeko Dokumentuaren eskaera-inprimakia entregatzean, eskaeraren frogagiri zenbakiduna emango zaio hiritarrari eta udalean bertan aurkeztu beharko du frogagiri hori 15 eguneko epean, Euskal Naziotasuna Aitortzeko Dokumentua jaso nahi badu.

ZAZPIGARRENA.- Euskal Naziotasuna Aitortzeko Dokumentua eskatu duten hiritar guztiei emango zaie, baina lehenengo Udalbiltzako udal ordezkari batek behar bezala benetakotuko du, Nortasun Agiriaren antzeko dokumentu baten bidez. Dokumentu horretan hiritarraren datu pertsonalak agertuko dira bera dela egiaztatzeko, baita argazkia, sinadura eta Euskal Naziotasuna nahi duela adierazten duen aitortpena ere.

ZORTZIGARRENA.- Hori dela eta, Udalbiltzak "Naziotasunaren Borondatezko Aitortpena Benetakotzeko Batzordea" eratu du. 12 alkatek osatuko dute batzorde hori eta alkate horiek, Udalbiltzaren ordezkari zapean eta Batzar Orokorraren agindua betez, Euskal Naziotasunaren borondatezko aitortpenak sinatzeko ahalmena eta betebeharra izango dute.

BEDERATZIGARRENA.- Euskal Naziotasuna Aitortzeko Dokumentuaren eskaerak tramitatzean, udal honek Udalbiltzako Batzar Orokorrak definitu eta onartutako nazio bateraezintasun irizpideak gogoan izan eta aplikatuko ditu.

Euskal Naziotasuna Aitortzeko Agiria Eskatu eta Igortzearu buruzko Udal Araudia, sakonki aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez, onartua izan da.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkate Ordeak, Batzarra amaitutzat eman du, eguerdiko hamabit'erdiak direnean.